

txoritxoari mokoka

Irrikitan geunden

Irrikitan geunden, bai, *Irrikitan* saioa euskarazko telebistan ikusteko. Eta irrikitan geunden abenduan estreinatu zuten saio berri horren bigarren atala behingoz ikusteko —lehendabizikoa gehiegitxo errepikatu digute, eta ez da txantxa—. Umore surrealista, umore errealista, umore zuria, umore beltza, umore urbanita, umore baserritarra, umore zuzena, umore zeharkakoa... pertsonak adina umore dagoelako euskaldunon artean ere, eta bete-bete eginda gaudelako txantxa molde ia beti-batekoa ikuste-



EITB
Aitzpea Goenaga, *Irrikitan* saioan eginiko agerraldian.

Amagoia Iban

arekin. Norbere eta besteen burua zirikatze gogo sarena, kafe antzoki formatu txikia eta aktore egoki mordoxka biltzeko saioa eskertzen dizkiogu, batez ere, Eneko Olasagastiren zuzendaritzapean Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek aurkezten duten *Irrikitan*-i. Hizkera eta doinu aniztasuna ere apreziatzen dizkiogu. Eta telebistako plato batean aurrez ezagutu ez ditugun komedianteek esateko dituztenak esan ditzaten kameraren aurrean jartzea; eta gertuko erreferentziak erabiliz barre txikia eragin daitekeela gogoraztea; eta... Barre terapia ederra egin genuen astearte gauean pantaila katodikoaren aurrean. Irrikitan geunden.

EUSKADI IRRATIA. 'Goizean behin' goizeko magazin ezagunaren 3.000. atala eman zuten joan den asteartean



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Goizean behin saioa lan talde zabala, Euskadi Irratiko estudio nagusian.

Behin baino gehiagotan entzundako magazina

«Ikasturte berriarekin batera bukatuko da 'Goizean behin', saioa zuzendari Nekane Peñagarikanok iragarri duenez

Xabier Martin | DONOSTIA

Nekez aurkitu ahal da euskarazko irrati magazinik, 3.000 atal egin dituenik. Marka handia da hori, eta halakoa egin du Euskadi Irratiko *Goizean Behin*-ek. Ez alferrik, saioak 14 urte bete ditu uhinetan, eta, hala, joan den asteartean 3.000. atala eman zuten.

Jaime Otamendiren izena *Goizean Behin*-ekin uztarturik dago entzule askorentzat. Izan ere, bera izan zen hastapenetik saioaren bihotza eta burua. «Urduritasunaren gainetik ilusioa datorkit burura, lehen atalak gogoratzerakoan», esan dio EGUNKARIA-ri Jaime Otamendik. Jose Mari Otermin orduko zuzendariaren eskaerari baietza

eman zion, baita baldintza bat jarri ere: «Nik nahi nuen taldearekin lan egitea».

Jatorrizko talde horretako kide izan zen Arantxa Iturbe. Gerora saioa zuzendaritza ere hartu zuen kazetariak, eta «gaztetasuna eta indarra» aipatzen ditu saioaren hasierak gogoratzerakoan.

14 urteko ibilbide luzean, gauza asko aldatu dira, noski. Jaime Otamendiren ustez, «urteak aurrera egin ahala profesionaltasunean irabazi, baina ilusioan galdu ere egiten da. Esaterako, hasieran Donostiara trenez joaten nintzen, eta bagoietan entzundakoekin gai asko ateratzen genituen. Bukerana, jada, autoz joaten nintzen». Ildo beretik, Arantxa

Iturbek esan du denborak nekea ekartzen duela: «Une bat iristen da non jada dena egin duzula iruditzen baitzaizu, baina egun ere hasierako filosofia berarekin dihardutela iruditzen zait, eta argi utzi nahi dut guk hasieratik gidoipean egin dugula lan. Beraz, hasierako freskotasan hori egon baldin bada, beti gidoipean eraikitakoa izan da».

Entzuleei eusteko aldaketak beharrezkoak ote diren eztabaidan sartu gabe, Jaime Otamendik entretenimendua eta informazioa uztartzea aipatu du gako gisa; «Eta horri usaimena ere gehitu behar zaio. Hala ere, ilusiorik ez izatea da hedabideetako profesionalen minbizia», gaineratu du.

Arantxa Iturbek, berriz, *Goizean Behin* etengabe aldatu dela uste du: «Komunikabideen politika ikusita, aldaketek beharrezkoak dirudite, baina hausnartzeko kontua da hori. Izan ere, gauza berriak eskaini bai, baina aldaketa drastikoen beharra ez dut ikusten. *Goizean Behin*-en kasuan, aldaketa Jaime joan zenean etorri zen, saioa arimarik gabe geratu baitzen».

Peñagarikano: «3.000. atala biribila da, baina egoera ez»

Nekane Peñagarikanok urte mordoa egin du *Goizean Behin* magazinean lanean, eta egun saioa zuzendaria da. Peñagarikanoren ustez, «azken lau urteotan asko aldatu da saioa». Izan ere, garai hartan ordubete luzeago izan zen tartea: «Horrez gain, arratsaldeko magazinari ekin zioten, eta gaiak eta baliabideak banatzen hasi behar izan genuen. Argi hitz egiteko, Euskadi Irratiko magazina izatetik goizeko magazina izatera pasatu ginen».

3000. atala aipatu ostean, Peñagarikanok argi utzi nahi izan du atal berezi horrek ezustean harrapatu dituela, kurtso hasieran programa ez zela izango uste baitzuten: «Zuzendaritzak programazioa aldatu nahi izan zuen, baina ez zaio atera nahi bezala. Guk, berez, abenduaren 31n bukatu behar genuen, baina egun batzuk lehenago esan ziguten jarraitu egin behar genuela». Horregatik guztia eragatik, Peñagarikanoren ustez, «3.000. atala biribila izan da, baina egoera ez».

Goizean behin-ek aurrera jarraituko balu aldaketarik gabe, betiko onespenera eusteko gauza izango ote litzatekeen galde-tuta, Peñagarikanok argi dauka «horretarako lider bat behar litzatekeela, eta ez saioak soilik, baita emisorak berak, eta egun ez du».

Nolanahi ere, Peñagarikanok argi esan dio EGUNKARIA-ri *Goizean Behin* ikasturte berriarekin batera amaituko dela.

ESANAK



JAIME OTAMENDI

('Goizean Behin'-eko zuzendari ohia)

«Ilusiorik ez izatea da komunikabideetan aritzen diren profesionalen minbizia»



ARANTXA ITURBE

('Goizean Behin'-eko zuzendari ohia)

«'Goizean Behin' aldatu egin zen Jaime joan zenean, saioa arimarik gabe geratu baitzen»



NEKANE PEÑAGARIKANO

('Goizean Behin'-eko zuzendaria)

«Euskadi Irratiko magazina izatetik goizeko magazina izatera pasatu gara»